

Literatura gorriaren ordezkariak

Vladimir gorria da. Vladimir sobietarra da. Vladimir zarautzarra da. Vladimir literatur talde bat da. Hori guztiori batu, eta Vladimir aldizkari bat ere bada: literatura gorriaren txoko txiki bat mundu zabalean.

Vladimirreko kamisetak jantzita zintuztela agertu ziren hitzordura taldeko bost gazteak: Gari-kowitz Berazaluze, Barkatu ama-ko kolaboratzailea, Ekaitz Berasaluze, Jurgi Olaizola, Jon Benito eta Iñaki Gurrutxaga. Orain bi urte sortu zuten Vladimir, 1997. urtean, Sobietar Iraultzaren 80. urteurrenean. Taldea sortu bezain laster, aldizkaria sortu zuten: Vladimir hau ere.

Argi dute taldekideek: «Sobietar Iraultza garaiko nostalgikoak», dira. Hilabetekaria kaleratzeaz gain, beste-

lako literatur ekitaldiak ere antolatzen dituztelako akaso. Idazleak kalean egitaraua, esate baterako. Hala, bi hilabetetik behin solasaldiak antolatzen dituzte. Apirilean, esaterako, Unai Iturriaga izango da Zarautzen, eta maiatzean, Jasone Osoro. Errezital bat ere prestatu du Vladimir taldeak, eta apirilaren 16an aur-

«Idazle gorriak nahiko ahaztuta daude, eta nahiz eta hor egon, jendeak ez ditu ezagutzen»,

keztuko dute, Zarautzen bertan, Arrano tabernan seguru asko.

Idazle ezkertiarren txokoa

Idazle ezkertiarren txokoa izan nahi du aldizkariak, eta oraingoz 25 pezetan edo libera batean saltzen dute hilabetekaria, tabernetan. Era berean bazkide sarea ere sortu dute. Hala, bazkide egin nahi duenak 32 pezetako edo libera bateko zigiluak bidaltzea besterik ez du ondoko posta kutxara: 391 Zarautz (vladimirbrigadak@yahoo.com). 60 bat bazkide ditugu, eta horietatik 12 presoak dira, azaldu du-

te. Pasadizoak ere badituzte: «Aurreko astean gutunazal bat jaso genuen, 3.000 pezeta zituen barnean. Mitxel Sarasketa preso ohiak bidali zizkigun beste lauzpabost presorentzako harpidetza egiteko: Karmelo Landa, Irusta...». «Orain Mitxel gure ohorezko bazkidea da», diote. Literatura gorriaren fanzinea kaleratzen dute, idazle ezkerzaleak aldarrikatzeko. «Idazle gorriak nahiko ahaztuta daude, eta nahiz eta hor egon, ez dituzte ezagutzen», iritzi diote.

Gazteak irakurri?

«Gazteak eta literatura? Ez dago inolako mugimendurik», diote. Telebistan emandako inkesta bat jarri dute horren adibidetzat. «Zarautzen egin zuten inkesta, eta erantzunak oso txarrak izan ziren. Inork ez du irakurtzen. Gazteek klasean agindutakoa bajkarrik irakurtzen dute», dio Ekaitzek. Badirudi, ordea, Vladimir taldeko gehienak alderantzizkoa egiten dutela: «Guk ikasi beharrean irakurri egiten dugu klasean», esan dute. Asko irakurtzen dute, baina gustuko dutena bakarrik. «Kafka hartuz gero... hilabeteak», dio Jurgik barrezka. Gero jakin dugu badabilela liburu bat amaitzeko ahaleginetan. Beste galdera bat egin diegu amaitu aurretik: «Nor omenduko zenukete?». «Omenaldi bat egitekotan Sarriandiarri egingo genioke», erantzun dute. «Eta nori ez? Loreak mendian eta behiak larrean daudela dioten liburuen egileei».

tezidor berriak

Jurgi Olaizola
aldeko kidea



Vladimir zer eta nolakoa den guk azaltzea baino egileen hitzak jasotzea hobe dela pentsatu dugu. Horregatik jaso dugu ondoren Vladimir aldizkariaren lehen aleko editoriala.

Literatura gorriaren eztanda da hau, kamarada. Aspertuta gaude loreak mendian eta behiak larrean daudela dioten liburuekin, kalean sua, odola eta gasolina

usaina besterik topatzen ez dugun bitartean. Horregatik sortu dugu Vladimir, batera hiltzen ikasi behar izan dugulako, bizitzen hasteko. Hemen gerra ez delako amaitu. Poeta guztiak ez daudelako kartzelan eta hilerrian. Oraindik ez gaituzte derrotatu eta izanen dute aurrerantzean gure berri. Hilero, Vladimir Brigadak sinatuta. Literatura munduko itsasoetan dabilen untzi boiatu bat izan daitekeen bitartean, iraultzaren berri onak herrietan barrena zabaltzeko. Lenin, Maikovski eta gure odolaren gorria bezala, Vladimir.